



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Emakumeen ahalduntzea sexuala izango da edo ez da izango

Emakumeak, eskubideak ditugun subjektu gisa, aurkikuntza ilustratua gara, XVIII. mendera arte gizonen ondare besterik ez ginen, gizonaren ama,

alaba, arreba, emaztea, maitalea, puta... Hau da, gizonaren zeozer.

Emakumeak pertsona bezala kontsideratzea mugimendu feministaren lehendabiziko garaipena izan zen; era berean, emakumeok sexualitate propioa dugula ere onartzea lortu zuen XX. mendean. Ordura arte, gizonari plazera emateko makina izatera eta gizonaren seme-alabak erditzeko inkubagailu soil izatera kondenatuak geunden. XXI. mendean, Estatu mailan eta legearen aurrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortu genuen, eskubide, aukera eta betebeharre dagokienez, beste behin, mugimendu feministari esker. Hala ere, *La Manada*-ren kasuarekin, kontsiderazioa eta onarpena literatura hutsean gelditu direla ikusi dugu, tratamenduan inoiz baino ageriago gelditu delako "berdintasunaren ilusioaren" menpe eta bortxaketaren kulturen bizi garela.

Berdintasun formalak ez da berdintasun erreala; aldi berean, sexualitate femeninoa, egun, ez da propioa eta sexualitate maskulinora egokitzeko hezten gaituzte. Beraz, gizarte patriarkal eta androzentrismo honetan, bi pertsonaren artean sexu harreman bat egoteko bien partetik oinarritzko osagaiak (gorputza-gozamena-atrakzioa) eta joko arauak (komunikazioa-adostasuna-errespetua) eskatu beharrean, soilik alderdi bakarra aintzat hartzen da. Ondorioz, badirudi, sexu harremanak bi pertsonaren artean eta elkarrekin egiten den zerbait izan beharrean, zehazki gizonak emakumeari egiten dion zeozer dela, gizo-

nen identitate aktiboaren eta emakumeen identitate pasiboaren ideia faltsua eta estereotipua mantenduz eta baimenaren inguruko teoria zentzugabea legitimatuz.

Boto partikularra eman duen epai-leak bortxaketaren bideoan «zala-parta» eta «gozamena» ikusi dituela baieztatu du. Honen arabera, bost mutilen gozamenarekin nahikoa baita demostratzeko sexu harremana egon zela eta kontrakoa salatzen duen emakumeak delitu baten biktima dela frogatu behar du, ondradua eta duina dela justifikatuz. Horrek argi erakusten du emakumeok bigarren mailako gizakiak izaten jarraitzen dugula, Simone de Beauvoirrek esan bezala, besteak gara eta gure artean mailak omen daude: santuak eta emagalduek ("emakume galduak"). Egun, ama izanik santuak izatera iritsi gaitezke, baina, ama ez garen bitartean,

an, une oro emagalduek ez garela demostratzen aritu behar dugu. Gazte-eraz esaten den bezala "*de puta (a) madre*", ama izan arte edo ama ez naizen bitartean emagalduek izan naiteke, beraz, ohorea gordetzeko modu bakarra neure burua birjina mantentzea da.

Funtsean, sexu harremanei dagokionez, emakumeok arimagabeko pampina bezala jokatu behar dugu, oster, emagalduek gara eta ez dugu ez ahotsik ezta eskubiderik ere. Hortaz, emagalduek ezin dira bortxatu pertsonak ez direlako. Emakumeen askatasuna sexu askatasunarekin lotzeko momentua iritsi da, emakumeen ahalduntzea sexuala izango baita edo ez da izango. Horretarako, esku artean dugun baliabide boteretsuena sexu hezkuntza da. Heldu da garaia emakumeok gure gorputzaren eta sexualitatearen jabe sentitzeko eta bizitzeko, inolako zigorrarik eta epairik sufritu gabe. •



Heldu da garaia emakumeok gure gorputzaren eta sexualitatearen jabe sentitzeko. Iñigo URIZ | FOKU